



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22



B E R A K O U D A L A

herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2025EKO URRIAREN 21EKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2025-10-21.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Inés R. Matxiarena Aldalur
José Esteban Aguirre Zubieta
Adela Arlegi Goienetxe
Francisco Larrechea Lazcano
Ángel Pombar Sainz

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurrenondo

JUSTIFIKATUTAKO EZ EGOTEAK:

Patxi Castillo Graciarena
María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste

JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Maidor Iantzi Goienetxe

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera bidali zen aurreko bilkurako aktari (2025-09-16). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

Francisco Larrechea aretotik atera da.

2. 2025/14 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (IASOLA ETA LARUNGO ABELTZAINZAKO MAHUKAK). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANÍA
2025/10/22



BERA

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

7tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/10/22

- POCTEFA proiektuaren barruan, Iasola eta Larun inguruan dauden abeltzaintzako mahukak hobetzeko gastu batzuk eginen dituela Udalak, eta horretarako krediturik ez dagoela indarrean dagoen aurrekontuan.

- Udal kontu-hartzaileak, 2025eko urriaren 13an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu partida honetarako:

1-4121-69202. Iasola eta Larungo abeltzaintzako mahukak. 15.112,00 euro.
Zenbateko osoa, 15.112,00 euro.

- Txosten horretan proposatzen duela hori finantzatzea aurrekontu aplikazio honen kreditu baja bidez:

1-4320-62200. Elkargunea leku komuna. -15.112,00 euro.
Zenbateko osoa, -15.112,00 euro.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen aurrekontuko 9. exekuzio oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea 2025/14 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, plenoak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespinari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Francisco Larrechea bileran sartu da berriro.

3. 25-01477 GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, OSOKO BILKURAK 2025-06-17AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA ("BIZIKLETA BIDEAREN HASIERAKO AZPIFASEA ERAIKITZEKO" PROIEKTUA, BAI ETA UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ERE, BEHIN BETIKO ONARTZEA).

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2025eko irailaren 16koa, zeinaren bidez Udalari jakinarazten baitzaio 25-01477 zenbakiko gora jotzeko errekurtsoa, María Elena Iraizoz Fagoaga andreak jarria Berako Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko ekainaren 17an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen "Berako bizikleta bidearen hasierako azpifasea eraikitze (I. Fasea: Bidasoaren ondoko pasealekua)" izenburuko obra proiektua, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda ere.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEANURU EGANA
2025/10/22

- Marcos Erro Martinez abokatuak 2025eko urriaren 13an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea nahitaezko epatzeak egin direla 2025eko urriaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (202. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegiari bidaltzea onetsitako txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera, epatzeko iragarkiaren kopia erantsita.

4. 25-01590 GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, OSOKO BILKURAK 2025-06-17AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA ("BIZIKLETA BIDEAREN HASIERAKO AZPIFASEA ERAIKITZEKO" PROIEKTUA, BAI ETA UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ERE, BEHIN BETIKO ONARTZEA).

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2025eko irailaren 16koa, zeinaren bidez Udalari jakinarazten baitzaio 25-01590 zenbakiko gora jotzeko errekurtsua, Ana María Iraizoz Fagoaga andreak jarria Berako Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko ekainaren 17an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen "Berako bizikleta bidearen hasierako azpifasea eraikitzeke (I. Fasea: Bidasoaren ondoko pasealekua)" izenburuko obra proiektua, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda ere.

- Marcos Erro Martinez abokatuak 2025eko urriaren 13an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea nahitaezko epatzeak egin direla 2025eko urriaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (202. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegiari bidaltzea onetsitako txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera, epatzeko iragarkiaren kopia erantsita.

5. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA UZTAILAREN 29AN ZIZUR NAGUSIAN GENERO INDARKERIAK ERAGINDAKO USTEZKO HILKETAREN AURREAN.





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez ONETSI DA** adierazpen instituzional hau:

Berako Udalak gaitzespen erabatekoa eta irmoa adierazi nahi du 2025eko uztailaren 29an Zizur Nagusiko biztanle M. B. 78 urteko emakumea genero indarkeriagatik ustez erailtzeagatik, eta doluminak eman nahi dizkie haren senide eta lagunei.

Gizarte demokratiko gisa, emakumea izateagatik, haren aurkako inolako indarkeriarik ez onartzeko konpromisoa dugu. Izan ere, indarkeria matxista egiturazkoa da, diskriminazioan, desberdintasunean eta emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen desorekan oinarritua. Eta horrela, bizitzeko, askatasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, berdintasunerako eta duintasunerako oinarritzko eskubideak urratzen ditu.

Udal gisa, eutsi behar diegu gizarte bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta indarkeria matxistatik gabea lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko ahaleginei.

Berako Udaletik hau nahi dugu:

1. Senideei eta gertuko inguruari gure babes eta elkartasun guztia helaraztea.
2. Emakumeek edozein eremutan jasaten duten indarkeria matxista oro salatzea eta arbuizatzea.
3. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeria guztien kontrako politika aktibo, integral eta koordinatuen bidez gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko konpromisoa berrestea.
4. Herritar guztiei dei egiten diegu indarkeriaren aurkako borrokan zeregin aktiboa izan dezaten.

6. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. URRIAK 15, LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: “LANDA EREMUKO EMAKUMEAK, NAFARROAKO POLITIKAREN BAZTERRETIK ERDIGUNERA”.

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez ONETSI DA** adierazpen instituzional hau:

LANDA EREMUKO EMAKUMEAK, NAFARROAKO POLITIKAREN BAZTERRETIK ERDIGUNERA

Nafarroako toki- eta lurralde-entitateak landa-eremuko herri guztiek osatzen dituzte, eta, horietatik guztietatik, bertan bizi diren emakumeen ahotsa entzutea nahi dugu, gure lurraldeen oraindirako eta etorkizunerako ezinbestekoak izan direlako, eta izaten jarraitzen dutelako.

2025eko Landa Eremuko Emakumeen Egun honetan, erabakiak hartzeko haien lekua eskatzen dugu, politika publikoak diseinatzeko eta aplikatzeko moduak oraindik ere ez baititu aintzat hartzen haien errealitateak, beharrak eta ekarpenak. Landa eremuko herriak ez dira bigarren mailako tokiak, baizik eta emakumeak bizkarrezur dituzten ekosistemak. Ohartarazi dutenez, hirigunearen eta hirigunearen logikak eta logika patriarkalak, baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu hirietan, landa-eremukoak baztertuz, eta emakumeei bereziki eragiten dieten egiturazko desberdintasunak sortuz. Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta ikusten ez dena, ez da zaintzen.

Landa-eremuko emakumeek diskriminazio-modu askori egiten diete aurre: emakumeak



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

izateagatik, herrietan bizitzeagatik, eta gurutzatzen diren beste aldagai batzuegatik (adina, klasea, jatorria, dibertsitate funtzionala, etab.). Horrez gain, bizi-baldintzak desberdinak eta zailagoak dira landaeremuan: enplegua, etxebizitza, garraioa... Gainera, ordaindu gabeko zaintza-lanen neurritz kanpoko gaitzakeria emakumeen gain geratzen da, eta bizitza- eta lan-aukerak, lidergoa eta parte-hartzea mugatzen ditu. Jakina, estereotipo patriarkalek ere badute beren zeregina: emakumeak herrietan "laguntzaitzat" hartzen dira, baina ez jabe, ekoizle, kudeatzaile edo buruzagi legitimoatzen.

Nafarroako emakumeen % 28k unibertsitate-ikasketak ditu (gazteen artean % 46k), eta gizonen % 20,1ek. Hala ere, emakumeen soldadak, batez beste, % 20 txikiagoak dira. Emakumeen % 9,4k lanbide zientifikoetan, teknikoetan edo espezializatueta egiten du lan, eta % 6,1ek nekazaritzan. Horrek esan nahi du gaitasun-aniztasun handia dagoela eta talentu hori guztia aitortu eta erabat aprobetxatu behar dela. Hala ere, nekazaritza-ustiategi-tako titularren % 28 baino ez dira emakumeak, eta horietatik % 17 baino ez dira ustiategiko buru (*Fátima Cruz-Souza, Luis Camarero Rioja eta Elvira Sanz Tolosana, Nafarroako landa eremuko emakumeen txosten teknikoa 2023, INAI/NABIk bultzatua*).

Herrietako emakumeen testuingurua zailtzen duten beste testuinguru batzuk ere badaude: landaeremuko maskulinizazioa, zahartzea eta despoblazioa emakumeentzako aukera faltarekin zuzenki lotuta daude, bereziki emakume gazteentzat. Eta indarkeria matxista herrietan badago, eta larriagotu egiten da isolamenduegatik eta baliabide publiko irisgarri eta espezifikoaren faltagatik.

Ildo horretan, Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea eta Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa, Landa Eremuko Emakumeen Estatutua sortzea aurreikusten dute, berau funtsezkoa izanik ekitatean aurrera egiteko, eta haien funtsezko zeregina aitortua izateko.

Argi dago politika publiko eta programa askok ez dituztela kontuan hartzen ez landa-ikuspegia, ezta genero-ikuspegia; hirietarako pentsatutako legeak, arauak edo ekimenak direlako, eta, horren ondorioz, garrantziarik gabekoak, eskasak eta askotan herrientzako kaltegarriak izan daitezke.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek, Landa Eremuko Emakumeen Egunean, premiazkoa eta beharrezkoa ikusten dugu helburu hauek lantzea:

1. **Eredu hiri-zentriko eta patriarkala gainditzea:** plangintza berriz pentsatzea lurralde-logika orekatu eta inklusibo batetik abiatuta, lurralde guztiak eta emakume guztiak Nafarroaren garapenaren funtsezko zati gisa aitortuko dituen.

2. **Politika publikoetan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzea:** legeak genero-ikuspegiarekin diseinatzea eta abian jartzea, emakumeen herrietan iraunkortasuna eta autonomia izan dezaten bermatuz. Hori bereziki garrantzitsua da landa-eremuari, despoblazioari, berdintasunari, iraunkortasunari edo lurralde-kohesioari buruzko arauetan.

3. **Landa-eremuko emakumeak eta emakumeen elkarrekin garapenaren eragiletzat aitortzea:** kulturaren eta bizitza komunitarioaren, elikadura-subiranotasunean, jakintzen transmisioan eta lan erreproduktiboan duten eginkizun estrategikoa baloratzea.

4. **Eskualde guztietan oinarriko eskubideak bermatzea:** zerbitzu publiko egokituak eta



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/10/22

BERA

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

7tik 5 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22

kalitatezkoak (osasuna, hezkuntza, zaintzak, etxebizitza, konektibitatea, garraioa, kultura, parte-hartze politikoa), genero-indarkeriaren aurrean baliabide irisgarriak barnebilduz.

5. Landa eremuan modu bidezkoan inbertitzea: ezinbestekoa da landa-eremuak behar bezala finantzatzea. Berdintasunaz hitz egitea ez da nahikoa: sustatu egin behar da, herri bakoitzean, erabaki bakoitzean, aurrekontu bakoitzean.

Eta hori guztia agenda feministarekiko eta landa-agendarekiko konpromisotik abiatuta, lurralde bakoitzaren errealitatearen arabera. Izan ere, eredu urbano-zentrikoa gainditzea eta genero ikuspegiarekin gainditzea demokraziaren, justiziaren eta etorkizunaren kontua da. Emakumerik gabe ez dagoelako landa-eremurik, eta landa-eremurik gabe ez dagoelako etorkizunik.

7. LANDA ETXEBIZITZA PUBLIKOA PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez ONETSI DA** Landa Etxebizitza Publikoa Plataformak aurkeztutako mozio hau:

MOZIO HONEN BIDEZ, NASUVINSARI (NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA SA) ETA NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATZEN ZAIE LANDA-EREMUKO ETXEBIZITZA PUBLIKOEN ALOKAIUEN PREZIOA JAISTEKO ETA ERRENTARIEN BEHARREN ARABERAKO ZERBITZUA ETA LAGUNTZA ESKAINTZEKO.

Zioen azalpena:

2018. urtetik aurrera, Nafarroako Gobernuak hainbat udalekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzen hasi zen, alokairuko etxebizitza publikoak eraiki edo birgaitzeko. Lurralde osorako beharrezkoa den etxebizitza-politika bat, zoritxarrez udalerrri, bailara edo eskualde bakoitzak dituen ezaugarri eta behar espezifikoak kontuan hartzen ez dituenak. Legedia ez da egokitu klase politikoak ezarritako erronkari aurre egiteko.

Horregatik, Iruñerrikan kanpo alokairuko lehen etxebizitza publikoak esleitu zirenetik hiru urte igaro ondoren, errentari askok oztopo eta arazo ugari aurkitu dituzte etxebizitza horien esleipenari eta kudeaketari dagokienez. Egoera txarrean dauden etxebizitzak ematen, etxebizitza sozietate publikoak salaketa horien aurrean duen axolagabekeriarekin, askotan merkatu librearen gainera dauden alokairu batzuk kobratzeraino. Iruñerrian edo despopulatzeko arrisku handia duen udalerrri batean 85m²-ko BOE bat alokatzearen benetako diferentzia objektiboa 34 eurokoa da.

2024ko urrian, Nafarroako Arartekoak, Q24/847 espedientean, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Departamentuari iradoki zion legea alda zezala, babestutako alokairuaren prezioak Nafarroako eremu batzuen eta besteen artean dauden «merkatuen errealitate desberdinen arabera» egokitzeko.

Errealitate horren aurrean, Plataforma Vivienda Pública Rural – Landa Etxebizitza Publikoa Plataforma hainbat topaketa egiten hasi zen 2024. urtearen hasieran Nasuvinsarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta alderdi politikoekin, azalduko arazoez sentsibilizatzeko eta beharrezko aldaketak aldarrikatzeko. 2024ko ekainean Nafarroako Parlamentuan lan-saio bat egin ondoren, talde parlamentario guztiek hitz egiten jarraitzeko eta dozenaka familiaren baldintzak hobetzeko lan egiteko konpromisoa hartu dute. Urtebete geroago, landa-eremuko etxebizitza publikoak alokatzen dituzten familiek egoera berean jarraitzen dute, eta arazoaren norabidea lehengoratzeko inolako zantzurik gabe.



SINATZAILEA

Berako Udaleko Alkatea.
AITOR ELENBURU EGANA
2025/10/22



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/10/22



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2025eko irailean, Nafarroako Gobernuak EtxeOn plana aurkeztu zuen, lurraldearen luzezabalean etxebizitza kopuru izugarria eraikitzeko ekimena. «Sakoneko aldaketa bat Nafarroan etxebizitza publikoa planifikatu, eraiki eta kudeatzeko dugun moduan» diote planaren aitzindariak. Ez da ulertzen sakoneko aldaketa batek errentarien beharrak eta plan horiek gauzatu diren udalerrri eta udalenak alde batera uztea. Gainera, urte hauetan zehar, Nasuvinsak utzi egin dio Nafarroako hainbat udalekin sinatutako hitzarmen kopuru oso esanguratsua garatzeari.

Horrela, premiazkoa eta beharrezkoa da neurri espezifikoak bultzatzea, etxebizitza publiko eskuragarria eta kalitatezkoa bermatzeko, ingurunearekin errotzen dena eta haren errealitate zehatzari erreferentzia egiten diona. Iruñerriaren zerbitzu edo erraztasun berdinak ez dituen hiri edo herri batetik, despoblazio arrisku izugarria duen bailara edo eskualderaino.

Horiek horrela, honako ERABAKI hauek hartu dira:

Lehena: Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda SA) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die Nafarroako BOEen alokairuen prezioak egokitu ditzatela lurraldean zehar dauden errealitate ezberdinetara, biztanleria, kokapen geografikoa, despoblazio arriskua, zerbitzuak edo udalerrri bakoitzaren egoera espezifikoak direla eta.

Bigarrena: Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda SA) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die 2015-2019 legealdian sortutako Etxebizitza Babestuen Errentamendurako Jardunbide Egokien Kodea egokitu, hobetu eta bete dezatela. Lehentasuna izan behar du Nafarroako etxebizitza babestuetako maizterren ongizateak eta zaintzak.

Hirugarrena: Udal honen osoko bilkurak Nasuvinsari (Navarra de Suelo y Vivienda SA) eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die udalekin, elkarteekin eta, oro har, gizarte zibilarekin adostu ditzatela udalerrien idiosinkrasian eragina duten etxebizitza-politikak.

8. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B25/2025 zenbakidunetik B29/2025 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 278/2025 zenbakiko ebazpenetik (2025-09-16) 311/2025 zenbakiko ebazpenera arte (2025-10-16).

9. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:20ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.



SINATZAILEA

Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELENBURU EGANA
2025/10/22



BERA

AKTA 2025-10-21 (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 232199

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AC4U UL49 EAHL NJ4U

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 7 orrialdea